

txintxarri

Bi gurpilen gainean jolasean

Igandean jokatu da BTT Lasarte-Oria trabetesia, eta antolatzaileekin hitz egin du TXINTXARRI-K / 6-7

JULIAN TOQUERO

Udan izango dira Txokoak

Ttakun Kultur Elkarteak haurrentzako uztaileko aisialdi eskaintza aurkeztu du / 8-9

EH Bilduk eta EAJk onartu berri diren 2018. urteko aurrekontuen balorazioa egin dute / 4

Ostadar SKT Saskibaloiko senior taldeak ligako kanporaketa jokatu du / 10

TXOKO ETA UDALEKUETARAKO BEGIRALE LAN-POLTSA

18 urte baino gehiago badituzu eta udan begirale izan nahi baduzu, bidali zure curriculum eta eskaera-orria* beteta Ttakunera maiatzaren 15a baino lehen.

*bulegoan eskuragarri

- Begirale titulua
- EGA edo baliokidea den agiria
- Sexu delitua egiteagatik aurrekari penalak ez dituzula egiaztatzen duen ziurtagiria



600 857 586 
www.electricidadarregui.com



Udaberri honetan, osatu zure sukaldeka kalitate goreneko produktuekin!

"Multi Delice" jogurt-makinarekin, egin jogurt krematsuak etxean



"Grunding" ate bakarrekoko hozkailuak



Erosi "Tefal" zartagia eta eraman beirazko ontzia opari!

Kale Nagusia 39 - LASARTE-ORIA - Tel. 943 36 10 80 - Tel/Faxa: 943 37 25 21



Iñaki Eizmendi, Miren Dobaran, Iñaki Aristondo, Estitxu Alkorta eta Josu Labaka, udalekuen aurkezpenean. TXINTXARRI

'Mingaina Dantzan', berriz Ttakunen eskutik

Udaleku horietan euskararen erabilera sustatzeko estrategiak landuko dituzte, ondoren besteetan erabili ahal izateko. Iaz bezala, aurten ere Ttakun Kultur Elkarteak antolatuko ditu. Egoera soziolinguistiko ezberdinetako gaztetxoak elkartuko dituzte.

Txintxarri

Ez dira ohiko udalekuak. Euskararen erabilera sustatzeko estrategiak lantzeko proba berritzailea egin zuten iaz, DBH1 eta DBH2ko gaztetxoekin. *Mingaina Dantzan* udalekuetan, testuinguru euskaldunetako ikasleak eremu ez horren euskaldunetakoekin elkartu zituzten, aztertzeko zer nolako eragina zuen horrek hizkuntzaren erabileran. Pozik daude sustatzaileak ateratako emaitzekin, eta aurten ere berriz egingo dute ekimena, moldaketa batzurekin. Iaz bezala, Ttakun Kultur Elkartearen esku geratu da antolaketa.

Ttakuneko Iñaki Aristondo izan zen udalekuen aurkezpenean, Donostiako Miramar Jauregian, joan den asteartean. Harekin batera eseri ziren Miren Dobaran Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politika sailburuordea, Iñaki Eizmendi Ebeteko aditua eta Josu Labaka UEMAko presidentea.

Dobaranek azaldu ditu udaleku horien berezitasunak. "Udalekuak antolatzea ez da berez Eusko Jaurlaritzaren zeregina; beste erakundeek eskarmentu handiagoa dute horretan". Proiektuan sartu izanaren arrazoia ondokoak dira: "Euskararen erabilera sustatzeko estrategiak nahi ditugu aztertu, beste udalekuetan erabili ahal izateko".

Estrategiak garatu

Ebetek zehaztu ditu udalekuetan erabiliko dituzten estrategiak. Eizmendik iaz aterako ondorioak ezagutarazi ditu: "Ideia zen eremu euskaldunetako haurrak gehiago izatea, besteak euskaraz hitz egitea bultzatzeko. Proporzio

**IZEN EMATEA
'MINGAINADANTZAN.
EUS' WEBGUNEAN
EGIN DAITEKE. BI
TXANDA IZANGO DIRA**

hori ez genuen lortu". Halere, emaitza onak lortu zituzten; euskararen erabilera %75koa izan zen. "Euskara asko hitz egin zuten, baina ez guk nahi genuen adina. Erabilitako estrategiak garatu egingo ditugu aurten".

Bi txanda izango dira, iaz bezala. Lehena, uztailearen 4tik 13ra; hurrengoa, hilaren 16tik 25era. Izen ematea apirilaren 27ra arte egin ahal da, www.mingainadantzan.eus webgunean. Maiatzaren 4ean aterako da onartuen zerrenda.

Lehenengo txandan irizpide soziolinguistikoaren arabera sailkatuko dituzte gaztetxoak. Hau da, bi herenak eremu euskaldunetakoak izango dira, eta gainerakoak ez horren euskaldunetakoak. Bigarrenean, berriz, bi herenak etxeko hizkuntza euskara dutenak izango dira. Modu horretan sortu nahi dute testuinguru berezi bat, euskaraz hitz egiteko horrenbeste aukera ez duten ikasleentzat.

Erromeria, disko eta liburu aurkezpena, igandean

Erketz Dantza taldeak 50. urteurreneko ekintzekin jarraituko du, eta egun berezia izango du etzi

Txintxarri

50. urteurrena ospatzen ari da Erketz EDT aurten. Hilabetero ekintza bat antolatu du taldeak. Oraingoan erromeria irekia, disko eta liburu aurkezpena egingo dute.

Apirilak 22an, igandean, izango da hitzordua, eguerdian, Okendo plazan.

Lehenik, dantza taldearen ibilbidea jasotzen duen liburua eta taldeko musikari eta lagunek urteurren berezi honetarako grabatutako diskoa aurkeztuko dituzte.

Ostean, erromeri irekia egingo da herritarrek gorputza astindu dezaten. Dantza taldeak herritarrek gonbidatu ditu parte hartzera; izan ere, edonor atera daiteke erromerian.

Erketzek jakinarazi duenez, eguraldi txarra eginez gero, ekintza Loidi Barreneko pilotalekuan egingo da.

Bestalde, larunbatean, apirilak 21ean, 50. urteurrenaren aurkezpen egunean egin zen *flashmobeko* irudien bideoa ikusi ahal da, Abend kafe antzokian, 19:00etatik aurrera.



TXINTXARRI

Osasuna bermatzeko deia

Errausketaren Aurkako Mugimenduak mobilizazio eguna deitu zuen asteazkenean, azken asteetan nazioartean erraustegiei buruz argitaratu diren berriak direla eta. Hainbat herrik bat egin zuten deialdiarekin, eta lasarteoriarrak ez ziren atzean gelditu. Osasun zentroan bildu ziren osasuna bermatzeko eskaera egiteko. Bestalde, Iñaki Errazkini (Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen diputatu ohia) eta Ainhoa Intxaurrendietari (GHK Gipuzkoako Hondakinen Kontsurtzioko lehendakari ohia) elkartasuna adierazi zioten joan den astean.

Merkataritza gunen handien eragina, aztergai

Lasarte-Oriako Talde Aktibista merkataritza gunen handiek denda txikiengan duten eragina lantzen ari da. "Saltoki handiek herriko merkataritza txikiari kalte handia eragiten die, eta, horrez gain, herrian ez ezik, inguru hurbilean horrelako gunen berriak eraikitzeak asmoak kezka handia sortzen digu".



Hori dela eta, datorren asteazkenean, apirilaren 25ean, Manuel Lekuonan hitzaldia antolatu dute, 19:00etan. Unai Fernandez de Betoño arkitektoa eta Belartza 2 gelditu! taldeko kideak izango dira bertan. Ekitaldi hori iragartzeko goiko irudi oinarri duen *moskeo kanpaina* jarri dute abian herrian.

Apirileko Feria Sevillatik Sasoetara ekarri dute

Lasarte-Oriak Apirileko Feria ospatu du, aurten lehenengo aldiz. Sasoeta Sasoian elkarteak sustatu du ekitaldia, udalaren, auzoko merkatarien eta Semblante Andaluzen laguntzarekin. Jaizkibel plaza kolorez bete du ekitaldi arrakastatsuak

Iñigo Gonzalez

Sasoetako Jaizkibel plaza (eta auzoa, oro har) alaitu eta koloreztatu du Lasarte-Oriako Apirileko feriak. Auzo elkarteari eta merkatariari otu zaie ideia, eta, udalaren eta Semblante Andaluz elkartearen laguntzarekin, festa ederra antolatu dute asteburu honetan. Lasarteoriatarrek gustura hartu dute ekimena, eta Jaizkibel plaza bete dute egunotan, eguraldia lagun.

Ostiral gauean piztu zituzten argiak. Ondoren, aureskua dantzatu (Euskal Herriko dantza tradizionala andaluziarrarekin uztartu dute), eta Amaia Gonzalez Caballero dantzariak eta bere hainbat ikaslek dantzatu zuten. Eguzkia ezkutatu zen, baina festa giroak segitu zuen: gaueko ordu txikietara arte dantzatu eta kantatu zuten herritarrek.

Larunbatean, gehiago

Ostiralean motorrak berotu eta gero, larunbatekoa izan da Apirileko Feriako egun handia. Goizean, Gitanillas del Alba eta Duende taldeetako gaztetxoek dantzatu dute, hainbat ikusleren aurrean. Eguerdia partean aritu dira, ederki aritu ere. Emanaldi horien ostean, sabela bete eta ezarriak freskatzeko tartea: Salamancatik ekarritako



Dantzarako tarte ugari izan da Sasoeta auzoan egin den Apirileko Azokan. TXINTXARRI

urdaiazpiko goxoa eta Andaluziako edari ezagunenetako bat, *rebujito* delakoa. Mantzanila ardoa eta gasdun freskagarriren bat (Sprite edo Seven Up, esate baterako) nahastu behar dira, edari hori egiteko.

Jaizkibel plazara igotakoek mokadutxoa jan bitartean, Semblante Andaluz elkarteko sukaldari taldeak hainbat arroz paella goxo prestatu ditu. Ehun pertsona baino gehiago elkartu dira herri bazkarian. Menua argi dago: momentuan prestatutako paella.

Digestioa egin eta gero, ez dira gutxi izan Semblante Rociero abesbatzarekin batera kantatzera animatu direnak. Jaizkibel plazan

bertan hasi dira, eta auzoan barrena ibili gero, ia ordu batez. Tabernaz taberna, kalez kale, giro ederra jarri dute kideek. Ondoren, zortziak pasatxo, Zambra taldeko dantzari trebeek zur eta lur utzi dituzte herritarrek. Errenteriatik etorri dira zuzenean, beste emanaldi batetik, baina energia eta gogoak soberan dituztela erakutsi dute. Txalo eginez saritu dute ikus-entzuleek dantzarien esfortzua.

Bukatzeko, gauerdia aldera itzali dituzte lehenengo Apirileko Feriako argiak. Ez litzateke harrizkoa izango datorren urtean berriro piztea. Sevillatik Sasoetara ekarritako ospakizunak eman ditu arrazoiak sustraiak botatzeko.

Azpimarratzeko hitzorduak

Konturatzera bukatu da Musika Astearen seigarren edizioa. Danok Kidek eta udalak elkarlanean, egitarau erakargarria osatu dute aurten ere. Ostiralean, erakustaldia eman zuen The Ludwig Vans zazpikoteak, haize eta soka instrumentuak eskuetan, Brigitarren komentuan. Larunbateko emanaldiak ere sortu zuen ikusmina: *La rosa del azafrán* (Azafrairen arrosa) zarzuela oholtzaratu zuen Sasibil konpainiak kultur etxean.



T. VALLES



NEURE KABUZ

ANE LABAKA

Gu

Gu, gu gara, “lehenengo gazteak bai...” esamoldearekin hasitako nostalgiaz betetako kontakizunak pasioz entzun ditugunak; espetxe martxa jendetsuak, intsumisio garaia... kaleak sutan. Gu, kartzelan gure belaunaldi kideak beharrean gurasoen lagun minak bisitatzea egokitu zaigunak. Gu, unibertsitatera heldu ginenean gu baino urte gutxi batzuk zaharragoak ziren ikasleen falta aldarrikatzen genuenak. Gu, urte batzuk lehenago jaio izan bagina zerrenda beltz latzenetan agertzeari panikoa izango geniokeenak; etengabeko jarraipenei, inkomunikazio aldiari.... Torturei.

Gu, gu gara, ume ginela herriko festetan poliziek jendea zergatik jipoitzen zuten ulertzen ez genuenak, oportetara edo hondartzara edo amonaren etxera gindoazenean berdez nahiz beltzez jantzitako haserre aurpegiko gizonak zergatik geldiarazten gintuzten galdetzen genuenak. Gu, gu gara, herri hau dardarka jarri zuten zenbait atentatu historiko telebistako irudi lausoetan baino gogoratzen ez ditugunak.

Gu, gu gara, ustezko “bake garaia”-ren seme-alabak; alde bakarreko su-etenarenak.

Gu, gu gara, garaiz eta tokiz kanpo, bostehun egunetik gora giltzapean pasa ostean aste honetan Madrilan akusatuen aulkian eserita egon gintezkeenak.



Astelehenero biltzen dira pentsiodunak Okendo plazan. TXINTXARRI

Sinadura bilketa egin dute Okendon, pentsio duinen alde

Lasarte-Oriako pentsiodunek Okendo plaza hartu dute beste astelehen batez. Egoera aldatu bitartean jarraituko dute

Txintxarri

Astelehenero moduan, protesta egin dute aste honetan ere Lasarte-Oriako pentsiodunek. Eguerdian bildu dira Okendo plazan, pentsio duinak eskatzeko.

350 herritarrek hartu dute parte aste honetako protestan, eta entzunarazi dituzte euren keak. Megafonia bat eskuetan hartuta, pentsioak murrizten dizkietenei hauteskundeetan ikusiko direla jakinarazi diete.

Horrekin batera, atxikimendua lortzeko, sinadura bilketa bat egiten ari dira. Mahaia jarri dute protestan, eta sinadurak bildu dituzte.

%0,25eko igoerari ezezkoa

Pentsiodunek argi dute Espainiako Gobernuak aurtengo igotako %0,25 ez dutela onartuko. Horregatik, pentsio duinak lortu arte ez dute etsiko, eta astelehenero bilduko dira.

EH Bildu: "Bozei begirako aurrekontuak dira"

Oposizioko alderdi nagusia izan da aurrekontuen aurka bozkatu duen bakarra: "Ez dago gogoetarik epe erdi-luzera begira". EAJk ere balorazioa egin du: abstenitu egin da, haien eskariak "gutziz ase" ez dituelako. Atsobakar kirolgunean jarri du indarra

Adrian Garcia

Duela astebete onartu zituen udalbatzarrak aurtengo aurrekontuak, PSE-EEren zazpi botorekin, eta EAJ, Ahal Du Lasarte-Oria eta PPren abstentzioari esker. EH Bilduko lau ordezkariak izan ziren aurkako boza ematen bakarrak. Aste honetan prentsaurreko batean eman dituzte jarrera horren arrazoiak: "Hurrengo urteko hauteskundera begira eginiko aurrekontuak dira", salatu du Leire Elizegi alderdiko bozeramaileak. Pablo Barrio, Kristina Bernal eta Gorka Lizarragarekin batera egin du agerraldia.

Aurreko urteetan EH Bilduk proposaturiko hainbat egitasmorako diru sorta onartu dute, baina ez da nahikoa izan haien ezezkoa eragozteko. "Pauso txikiak izan dira". Izan ere, Elizegik azaldu duenez, aurreikusitako inbertsioen %10,6 besterik ez dira bete. "EAJren eta PSE-EEren kudeatzeko ahalmena eskasa da. Kea saltzen dira maisuak". Horregatik, zalantzan jarri ditu aurtengorako inbertsioak betetzea.

Hurrengo urtean dira egitekoak udal hauteskundeak, eta EH Bilduren ustez, horretan pentsatzen ari dira dagoeneko sozialistak. "Ez dago gogoetarik epe erdi-luzera begira egin nahi den Lasarte-Oriari buruz".

Adibideak jarri ditu Elizegik: Atsobakarreko kirol gunea. "2019rako hauteskundeetarako bukatuta nahiko lukete. Proiektu horren kostuengatik, plan estrategiko baten barruan behar luke, herritarren parte hartzea sustatzeko. Baina horren emaitzak ez dira ikusten". Argi utzi du zinegotziak: EH Bildu ez dago kirolgunearen aurka, baina "herritarrekin eginiko plan estrategikoa" bota du faltan.



EH Bilduko ordezkariak, prentsa agerraldian, asteazkenean. TXINTXARRI

Beste bi proiektu aipatu ditu Elizegik, aurrekontuen muina argitzen dutelakoan. "Argiteria eta asfaltatua egiteko inbertsio potoloak hauteskunderarako prest egoteko pentsatuak daude".

Beharrezkotzat jo ditu lan horiek, baina "herriko beste beharrek" tartekatu behar direlakoan dago, "nahiz eta horren ikusgarriak ez izan". Parte hartzea, genero berdintasuna eta aniztasunen inguruan EH Bilduk egindako proposamenei uko egin zaiela salatu du. "Lan handia eta bozka gutxi ematen dituztelako, seguruenik".

EAJren balorazioa

EAJk ere aurrekontuen balorazioa egin du, eta ohar bidez zabaldu du. Jon Antxordoki eta Estitxu Alkorta dira zinegotziak. Zazpi zuzenketa aurkeztu dituzte guztira. Horietako bat kendu egin dute azkenean, zirriborroaren lanketan parte hartzeko aukera eman diolako udal gobernuak. "Landaberri Ikastolaren gainak konpontzearena, koherentzia politikogatik atzera bota dugu,

udala gehiegi zorpetzeko arriskuan dagoelako, eta batez ere, 2011-2015 legealdian nahiko lan egin genuelako udalak zekarren zorpetze maila murrizteko".

Hala eta guztiz ere, jeltzaleen eskariak "gutziz ase" ez direlako, ez du "baiezko borobila eman", nahiz eta aurrekontuak onartzeko oztoporik ez jarri.

"Kirola ardatz"

Dena den, EAJk azaldu du bat datorrela aurrekontuak jasotzen duen hainbat proiektuekin. Horien artean bat nabarmendu dute: Atsobakarreko 2. kirolgunea. "Egitasmo horrek kirol azpiegituraren beharrei benetan erantzuten dio".

Kirolgune berri horretan atletismo pistaz gain, errugbi eta futbol zelaiak egin nahi dituzte. "Lehentasunezko proiektua da", EAJren arabera. Alderdia "harro" dago, oposiziotik udal "gubernua bide horretan jartzea" lortu duelako. Gogora ekarri du gimnasio pribatuetako kudeatzaileekin sinatutako akordioa ere haien proposamena izan zela.

David Heras: "Ea datorren urtean ere elkartzen garen"

Harrera beroa egin diote David Heras herritarrari udaletxean. Goya saria irabazi zuen, 'Handia' filmeko efektu bereziengatik

Txintxarri

Efektu berezirik gabekoa izan da larunbateko harrera; dena izan da errealia, gure begiek ikusten duten bezalakoa. David Heras herritarra pozarren sartu da udaletxeko pleno aretora, otsail hasieran irabazitako Goya saria besoetan. Udal korporazioko kideek harrera xume eta beroa egin diote lasarteoriatarri.

Bost izendapen eta gero, seigarrenean eskuratu du sari preziatua, *Handia* filmeko efektu bereziengatik. "Aurreko izendapenetan ez nuen irabazi, eta oraingoan tokatzen zitzaidan;



Udal ordezkariak Herasekin. TXINTXARRI

argi neukan, nire izena entzun izan ez banu, lapurtu egingo nukeela saria", adierazi du, umoretsu.

Herasen ahaide eta lagun ugariak bete dute aretoa.



TXINTXARRI

Boluntariotzari buruz hausnarrean

Danok Kide elkarteak antolatzen duen *Balioetan* hezijardunaldien XV. edizio amaitzean da. Asteleheneetik asteazkenean Lahar eta Nagusilan elkartetako kideek boluntariotzari buruzko hitzaldiak eskaini dituzte Manuel Lekuonan. Herritarrek hitzaldi aretoa bete dute. Gaur, berriz, jardunaldien azken ekintza izango da. Nagusilan elkarteko antzerki taldeak Chejoven *Boda en Yalta* lana eskainiko du, 19:30ean, Manuel Lekuonan.



TXINTXARRI

Altsasuko gazteekin elkartasuna

Astelehenean hasi da Altsasuko zortzi gazteren aurkako epaiketa. 2016an Guardia Zibilekin izandako liskar baten ondorioz, "terrorismo delituak" egotzi dizkiete, eta egoera salatzeko, elkarretaratzea egin dute lasarteoriatarrek, Okendo plazan. Larunbatean manifestazio jendetsua egin zuten Iruñean, auziperatuei babesa emateko; 50.000 pertsona elkartu ziren Nafarroako hiriburuan.



Astearte eguerdian aurkeztu dituzte bigarren Osasun Jardunaldiak, Aldaz hortz klinikan. TXINTXARRI

Osasun Jardunaldiak bigarrenez, Lasarte-Orian

Aterpea merkatarien elkartearen eskutik bigarren Osasun Jardunaldiak egingo dituzte hilabete amaieran. Osasunaren inguruko zenbait aholku jasotzeko aukera izango dute lasarteoriarrek. Haur eta gurasoei zuzendutako psikomotrizitate saio bat ere izango da

Txintxarri

Bigarren Osasun Jardunaldiak bilduko ditu hilabete amaieran Manuel Lekuonako hitzaldi aretoak. Lasarte-Oriako Aterpea merkatarien elkarteak antolatuta, hainbat ekintzatan parte hartzeko aukera izango dute herritarrek. Elkartearen hogeita bosgarren urteurren egitarauaren barruan antolatutako egitasmoa da.

Osasunarekin lotutako herriko zenbait establezimenduk hartuko dute parte jardunaldietan, bederatzik

zehazki; Ana gizonzkoen ileapaindegiak, Aldaz hortz klinikak, Marbell ileapaindegiak, Haritza terapia energetikoak, Lasarte Multiophtikasek, Oihana estetikak, Amaia Olondris podologia zentroak, Noelia Calero osteopatiak eta Salto Gela psikomotrizitateak.

Horiek guztiek osasunarekin lotutako zenbait aholku eta datu emango dizkiete bertaratzen direnei. Besteak beste, zorriei nola aurre egin, hortzetako protesi kengarrien zainketa eta mantentzea nola egin,

oinkadaren azterketa, edota helduaroko ikusmen arazoak nola konpondu ikasi ahal izango dute.

Horrekin batera, haurrei eta gurasoei zuzendutako psikomotrizitate jardunaldi bat ere eskainiko dute. Hau ez da kultur etxean izango, Kale Nagusiko berezko lokalean baizik.

Jardunaldi guztiak dohainik izango direla jakinarazi du Aterpeako presidentea Ramon Ormazabalek; herritarrek ez dute sarrerarik ordaindu

beharko horietan parte hartzeko.

Formatu berria

Bigarren jardunaldiak formatu berrian iritsi dira Lasarte-Oriara. Iragan urteko jardunaldiarekin alderatuz, aurten egitasmoak osasunari lotutako gai zehatzak landuko ditu. Horrela egitearen arrazoa "bezeroak erakartzea" izan dela azaldu du Ormazabalek.

Eskerrak

Aterpeako lehendakari Ormazabalek esker hitzak eskaini

dizkie jardunaldietan parte hartzera animatu diren bederatzik establezimenduei.

Parte hartzaileek ere eskerrak eman dituzte jardunaldiak antolatzeagatik, eta baita horietan parte hartzeko aukera emateagatik ere.

Hogeita bost urte lanean

Mende laurdeneko ibilbidea egin du Aterpeak Lasarte-Oriako merkataritzaren alde lanean, eta hori ospatzeko ekintza askoko egitarau zabala prestatu dute.

VI. Lore eta landare azokak koloreztatuko du Okendo plaza

Udaberria iristearrekin batera, lorez eta landarez josiko da Okendo larunbatean. Haurrentzako tailerrak ere izango dira

Txintxarri

Seigarren urtez, lore eta landareen azoka antolatu dute Behemendi elkarteak eta Lasarte-Oriako Udalak, elkarlanean. Hamarretan zabalduko ditu larunbateko

azokateak, eta 14:00ak bitarte produktuak erosi zein ikusteko aukera izango dute bezeroek. Hamabost postuk hartuko dute parte aurtengo edizioan, eta horien artean, Lasarte-Oriako bat ere izango da.

Lore eta landare naturalak erosteko aukera izango dute bertaratzen direnek, baita medikuntza naturaleko artisau produktuak, edota kosmetikako zenbait produktu ere.

Haurrentzako tailerrak

Etxeko txikiek ere azokaz gozatzeko aukera izango dute. Bi tailerretan parte hartu ahal izango dute; prentsaturako loreena eta umeentzako landatzea. Zurezko jolasak ere izango dituzte plazan.



Azokaren antolatzaileak, atzo egindako aurkezpenean. TXINTXARRI

Egitaraua

Aterpea merkatarien elkarteak bigarren urtez antolatutako Osasunaren Jardunaldietan parte hartzeko aukera izango dute lasarteoriarrek.

Apirilak 23, astelehena

- **16:00-16:30** Ana gizonzkoen ileapaindegiaren eskutik, *Nola akabatu zorriak.*
- **16:30-17:00** Aldaz hortz klinikak *protesi kengarrien zainketa eta mantentzea.*
- **17:00-17:30** Marbell ileapaindegiaren eskutik, *Nubea Oil Therapy. Buruko larruzalerako Nubea terapiak. Esentzia olioien sinergia.*
- **17:30-18:30** Haritza terapia energetikoak *Osteopatiaren onurak* jardunaldia eskainiko du.
- **18:30-19:00** Multiophticas Lasarteren eskutik, *Helduaroko ikusmen arazoak: Nola aurre hartu eta konpondu.*

Apirilak 24, asteartea

- **17:00-17:30** Oihana estetika zentroak *Irrati frekuentzia tratamendua Medesec-ekin, eta tratamenduak Dermapunt-ekin.*
- **18:00-19:00** Amaia Olondris podologiak, *Oinkadaren estudioa* jardunaldia emango du.
- **19:00-19:30** Noelia Calero osteopatia zentruaren eskutik, *Noiz joan osteopatarenera eta zergatik?*

Apirilak 27, ostirala

- **18:00** Salto Gela Psikomotrizitatean, *0 eta 2 urte arteko seme-alabak dituzten familientzat topaketa: Nire seme-alaba jai da, eta orain zer?*

"BTTko trabesiak herria suspertzen eta haren izena zabaltzen du"

Igande goizean jokatu dute BTTko trabesia, Andatza mendi inguruan. Antolatzaileek dena prest dute; eguraldi ona lagun, parte hartzaileek bizikleta egun handi batez gozatzeko gonbita egin dute. Azken ordura arte dago izena emateko aukera

Adrian Garcia

Atzera kontua jarria dute dagoneko. Lanpetuta ibili dira Lasarte-Oria BTTko antolatzaileak, baina dagoeneko dena prest dute. Igandea iritsi zain besterik ez daude. 09:30ean aterako dira txirrindulariak Andatza mendi inguruko paraheetaz gozatzeko. Lagun talde batek sortu zuen trabesia duela zortzi bat urte, eta orain arte haiek arduratu dira dena antolatzeaz. Aurten aldaketa bat eduki dute. Flygroup taldeak lagundu du antolakuntza lanetan. Halere, probaren ezpiritua hasierakoaren berbera jarraitzen du.

300 bat pertsonak eman dute izena oraingoz, baina azken egunetan gehiago izatea espero dute. Larunbatean eta igandean bertan ere aukera dago proban inskribatzeko. Bihar Urbileko Eroskiko gunean, eta etzi goizean, Antonio Mercero gunean. 500 parte hartzaileen bueltan ibili dira azken urteetan.

Mikel Galdona, Gorka Lertxundi, Jose Ignacio Diez, Andoni Gomez eta Alvaro Castro aritu dira antolatzaile lanetan, besteak beste. Mahai inguruan bildu ditu TXINTXARRI-k probari buruz hitz egiteko.

Badu berezitasun bat trabesiak, ibilbideei dagokionez. Bi ibilbide prestatzen dituzte, bat bestea baino motzagoa. Baina urtero-urtero berritzen dituzte, eta soilik azken astean jakinarazten dituzte.

"Urtero aldatzen dira zertxobait, nahiz eta oinarria berbera izan. Bide berriak aurkitzen saiatzen gara, baina gauza handirik ezin da asmatu Andatza", dio Galdonak.

Aurten ibilbide luzeak 38 kilometro ditu, eta 1.100 metroko desnibel positiboa. Motzak antzeko ibilbidea egiten du, baina bidegurutze batean bidelaster bat hartzen du. Guztira 28 bat kilometro ditu, 800 metro desnibel inguru. Anoa postuak izango dira ibilbidean zehar, baita helmugan ere.

Errazagoa

Iazkoa baino errazagoa da trabesia, antolatzaileen arabera. "Iaz agian pasa egin ginen, zati batzuek zailtasun handia zuten", hausnartu dute bost lagunak. "Aurten txirrintatik jaitxi gabe ibiltzeko zati gehiago daude. Iaz euria egin zuen, eta lokatzarekin asko zaildu zen proba", azaldu du Castrok.

Lasarte-Oria BTTko webgunean eta sare sozialetan argitaratu dituzte ibilbideak. Halere, ohartarazi dute "aldaketarentxo bat edo beste" izan ditzatekeela, azken unera arte egon baitira gauzak hobetzen. Edonola ere, ibilbide guztia ongi markatua dago, eta bidegurutzeetan boluntarioak izango dira, inor galdu ez dadin. "Badaezpada ere, GPSko track-ari begira dagoena harritu ez dadin: ibilbidea ez dator gutiz bat".

Azken finean, bi helburu buruan prestatu dute trabesia. "Batetik, edozeinek parte hartu ahal izateko prestatzen dugu motza. Bestetik, ondo ibiltzen dena asetzeko dugu luzea", dio Castrok. Halere, "ibilbide teknikoa" dela ohartarazi du Galdonak. "Mendian bizikletan ibiltzen ohitura duenak ez du arazorik izango. Baina ibili egin behar da".

Eguraldi ona egin du aste osoan, eta astebururako ere eguzkia dago iragarria. Horrek proba erraztuko du, lokatza lehortu delako. "Azken urteetan baino errazagoa izango da. Halere, mendian badaude urte osoan lokaztuta dauden zonaldeak", oroitarazi du Galdonak.


Joan den igandean deialdia egin zuten ibilbideak ezagutzeko. 30 bat pertsona azaldu ziren, beste urteetan baino gehiago. "Pozik gaude, sare sozialetan egin genuen deialdia, eta ezagutzen ez genuen jendea agertu zen, gazteak horietako asko".

Denborarik gabe

Probaren ezpiritua argia da: ez da lehiakorra, denborak ez baitira hartzen. "Ondo pasatzea da helburua". Halere, gisa horretako probatan gertatu ohi denez, parte hartzaileen artean izaten dira lehia txikiak. "Normala da, bakoitzak nahi bezala gozaten du trabesiaz. Beste probetan ez bezala, guk



Mikel Galdona, Gorka Lertxundi, Andoni Gomez, Alvaro Castro eta Jose Ignacio Diez trabesiako



ez dugu denborarik hartzen, beraz, ez dugu sailkapenik egiten. Nahi duena azkar ibili dadila, guk ez dugu hori sustatzen. Saririk ez dugu banatzen, zozketa egiten dugu".

Beste berrikuntza bat dakar aurten: bizikleta elektrikoekin parte hartzeko gonbita egin dute. Mota horretako bizikleta gero eta gehiago ari dira ikusten azken aldian, eta aukera luzatu nahi diete horiei ere proban aritzeko.

"Ez da lasterketa bat, beraz lekua dute bizikleta horiek. Lesioren bat, edo gainpisua duten pertsonak erabiltzeko aukera ona da. Gero eta gehiago erabiliko dira".

Mimoz prestatzen dute proba, eta saiatzen dira parte hartzaileak ongi zaintzen. Horregatik, izen ematearekin batera oparixko bat banatzen dute urtero. Aurten kaskoa gordetzeko zorro bat emango dute dortsalarekin



antolatzaileak. TXINTXARRI

batera. Horrez gain, babesleek emandako produktu guztiak zozketatuko dituzte probaren amaieran.

Herriaren izena zabaldu

Horrelako proba bat egiteko gauza asko hartu behar dira kontuan. Baina denetan "buruhauste handiena" boluntarioena da. Lan ikusezina da haiek egiten dutena, baina ezinbestekoa tamaina horretako ekitaldi bat egiteko. "Zaila da boluntarioak lortzen eta horiek kudeatzen. Denek nahi dugu proba egin, baina adinean aurrera egin ahala nahiago dugu familiarekin egon edo beste gauza batzuk egin", dio Galdonak.

60 boluntario behar dituzte denera; gurutzebideak zaindu, anoa postuetaz arduratu, dortsalak eman, argibideak eman parte hartzaileei... Horrez gainera, probaren aurretik ere lan handia egin behar da. "Ibilidea markatu eta zehazteaz gainera, bidea garbitu behar da, txirrindulariek gero arazorik

izan ez ditzaten. Harriak, pintxoak... kendu behar dira, putzuak lehortzen saiatzen gara".

Saiatuz Txirrindulari Taldekoek sortu zuten travesia orain zortzi bat urte, eta ordutik indarra hartu du probak. Urte gutxian eskualdeko erreferentziako travesia bilakatu da. Inguruko herrietako parte hartzaileez gainera, urrutia egiten ere etorri izan dira.

Izan ere, gisa horretako probak onuragarriak dira herriarentzako, "suspertu egiten dituztelako". Zalantzarik ez dauka boskoteak; giroa jartzen dute parte hartzaileek eta haiek laguntzera etortzen direnak, eta Lasarte-Oriaren izena zabaltzen du. Haatik, laguntza gehiago faltan sumatzen dute. "Herriak ez digu gehiegi laguntzen. Ez jendeak, ezta udalak ere. Egin ditugun deialdietan jende gutxi agertzen da". Azkenean gertuko laguntzari esker ateratzen dute aurrera. "Herri txikiagoetan agian kontzientzia handiagoa daukate".



Mercerotik aterako dira txirrindulariak aurten ere. Helmuga toki horretan bertan izango dute. JULIAN TOQUERO

m
Mondragon
Unibertsitatea

**GURE
IKASLEEN
AHOTAN**



Oier Escudero: "Gehien gustatzen zaidana, proiektu desberdinen bidez aurrez ikasitakoa praktikan jartzeko aukera izatea da".

Oier Escudero (21 urte, Andoain) Mondragon Unibertsitateko Industria Diseinu eta Produktu Garapeneko Ingeniaritzako 3. mailako ikaslea da.

Zergatik aukeratu zenuen Industria Diseinu eta Produktu Garapeneko Ingeniaritza Gradua? Eta zergatik Mondragon Unibertsitatean?

DBH eta Batxilergoko ikasturteetan gehien gustatzen zitzaizkidan ikasgaiak marrazketa tekniko eta plastika edo marrazketa artistikoa ziren. Horiez gain, matematika zalea egin nintzen eta nahiago izaten nintuen ikasgai teknikoak eta ez letretakoak. Horregatik, ingeniari bat egitea aukeratu nuen, eta hainbat unibertsitateetako ate irekietara joan ostean, Mondragon Unibertsitateko metodologiak piztu zidan interes gehien eta hona etortzea erabaki nuen.

Nola balioetsiko zenuke orain arte bizitako esperientzia?

Lehenengo urtea oso aldapa gora egin zitzaidan hasieratik, baita bigarren urtea ere, nahiz eta bigarren mailan azterketak gaintzeko eta emaitza onak errazago ateratzeko gai izan nintzen. Orain, 3. mailan, oso gustura nago aurrerantzean oso interesgarriak eta baliagarriak izango zaizkidan ikasgaiak ikasten.

Nola definituko zenuke Goi Eskola Politeknikoan jasotzen duzun ikasteko metodologia?

Nire ustez metodologia egokia da, hasiera batean hori iruditu zitzaidalako aukeratu nuen hona etortzea, eta 3 urteren ondoren, hiruhilekoen hasieran teorikoki emandakoa praktikan, proiektu desberdinen bidez, hiruhilekoaren amaieran jartzeko aukera ematea oso egokia dela iruditzen zait oraindik ere.

Unibertsitatetik zer da gehien gustatzen zaizuna? Eta zerbait hobetzeko?

Gehien gustatzen zaidan ezaugarrietako bat, lehen esan bezala, proiektu desberdinen bidez aurrez ikasitakoa praktikan jartzeko aukera izatea da.

Hobetzeko dagoen arloetako bat, nire ustez, klase ordu kopurua da, badakit ordu kantitate bat eman beharra daukagula, baina uste dut bost ordu jarraian oso astunak egiten direla, bai irakasle bai ikasleentzat.

Lanean ari zara ikasten duzuen bitartean, dual eredu. Non ari zara jardunean eta zer lan mota egiten duzun?

Behin gradua bukatzean, master bat egitea da nire hasierako intenzioa, hainbat master begiratzen ari naiz. Eta ez badago intereseko masterrik, lanean jarri nahiko nuke lehenbailehen, baina masterra da oraingoz nire lehentasuna.



TXOKOAK 2018

Herria, udara, euskara

Izen-emate epea zabalik: apirilaren 23tik maiatzaren 24ra Ttakun Kultur Elkartearen

UDARAN TXOKOAK

Ttakun Kultur Elkartearen

1992. urtetik orain arte, urtez urte, Ttakun Kultur Elkartearen izan da Lasarte-Oriako udaleku irekien antolatzailea. Ibilbide honetan udalak urtero diruz lagundu du elkartearen, egitasmoa babestuz. Aurtengoan, berriz, udalak ezohiko tratamendua eman dio; udaleku irekiak lizitaziora ateratzea erabaki du.

Urte hauetan guztietan egitasmoa eraiki dugu, betiere oinarritzat hartuta proiektu hezitzaile horren helburuak eta balioak. Urtetik urtera hobekuntza nabarmenak gehitu dizkiogu programari, familiak, haurrak eta gaur egungo gizarteak sortarazitako beharrei erantzuteko. Besteak beste, Goitzoko zerbitzua, Jostakiroa programa, herriko eragileekin elkarlanean diseinatutako programazio anitza eta azkeneko bi urteetako jangela zerbitzua.

Asteak dira gutunazalen irekiera egin zenetik, baina oraindik elkartearen zain dago ofizialki ebazpena jakiteko. Asteotan familiak elkartera behin eta berriro etorri dira txokoei buruz galdezka. Ebazpen ofizialik ezean, erantzunik ez du eman Ttakunek.

Era berean, ulertzen dugu gaztetxoaren arduradunengan itxarote horrek sortzen dituen eragozpenak eta ezinegona.

Hori dela eta, elkartearen fidel izan zaizkion herritarrak kontutan hartuta, erabaki hau hartzea derrigorluak sentitu gara: lehiaketa publikoaren emaitza edozein dela ere, Ttakun Kultur Elkartearen udaleku irekiak antolatuko ditu. Udaran Txokoak, gure betiko txokoak, antolatuko ditugu, lehenengo aldiz udalaren diru laguntzarik gabe.

Mende laurdenez Udako Txokoak antolatu ostean, horiek egingo direla bermatzeko betebeharrak du herriko elkarteak. Herriko eragile, elkarte, ekoizle, hezitzaile, familia eta haurrak barne hartzen dituen proiektua da. Jakitun gara ahalegin handia eskatuko digula udaleku horiek antolatzeak. Halere, betiko filosofiarekin jarraituko du Ttakunek: herrigintza lehenestea, etekin ekonomikoaren aurretik. Orri hauetan ikusiko duzuen eskaintza da horren erakusgarri. Lasarte-Oriako gaztetxoek kalitatezko Udako Txokoak izango dituzte.

TXIKI, TXIKI,
TXIKIA...:
HH3-HH4
(2013 eta 2014 bitartean
jaiotakoak)



EKINTZAK

- Psikomotrizitate saioak astero, psikomotrizitate materialarekin.
- Ipuinetatik eta jolasetik abiatuta asmakuntza plastikoa, gorputz adierazpena eta soinuarekin jolasean arituko gara.
- Sukaldaritza tailerrak, ur jolasak, eskulanak...
- Irteerak: Zubietako frontoira 15:30ak arte irteera, Lasarte-Oriako parkeetara eta udal igerilekura joango dira besteak beste.
- Festak eta jaialdiak.
- Herriko belaunaldi desberdinen arteko ekintzak.
- Azken eguneko festa.

Handitzen-handitzen!: HH5-LH2
(2012 eta 2010 bitartean jaiotakoak)

EKINTZAK

- Gure begiraleekin jostakiroa saioak, kirola eta jolasa uztartzeko saioak material bereziarekin.
- Talde jolasak: ur jolasak, ginkana, mendi irteera...
- Irteerak igerilekuetara eta hainbat bisita gidatu.
- Herriko eragile desberdinekin ekintzak.
- Jaialdiak eta azken festa.

ADI LH1 eta LH2: Astigarragara goaz 4 egun!!

Uztailaren 2tik 13ra Txokoe-
tan. 16tik 19ra udaleku
itxietako txanda bat eta
20tik 27ra amaiera bikaina
Txokoetan!

Goitzoko gabe	Goitzokorekin
Hilabetea: 170€	Hilabetea: 196€
1. hamabostaldia: 147€	1. hamabostaldia: 162€
2. hamabostaldia: 125€	2. hamabostaldia: 136€

*10€-ko deskontua 2 anai-arrebek eta 20€-ko deskontua 3 anai-arrebek parte hartzen badute udalekuetan.

Abentura eta kirola: LH3-LH6
(2009 eta 2006 bitartean jaiotakoak)

EKINTZAK

- Abenturazko ekintza bereziak.
- Ur jolasak.
- Gure begiraleekin jostakiroa saioak, kirola eta jolasa uztartzeko saioak, material bereziarekin.
- Talde jolasak eta tailerrak.
- Irteerak: igerilekuetara, hondartzara, bibak...
- Herriko eragile desberdinekin ekintzak.
- Azken festa.



AUKERA PAREGABEAK

DONEMILIAGA + TXOKOAK

Donemiliaga aterpetxean egon eta gero...
uztailaren 16tik 27ra abentura eta kirola
Txokotan.

10:00etatik

315€

*Ttakuneko
bazkideentzat prezio
berezia

TXOKOAK + ATXONDO

Uztailaren 2tik 13ra, Txokotan lagunak egin
eta gero... abentura elkarrekin jarraitzeko
aukera izango duzue Atxondon.

10:00etatik

245€

*Ttakuneko
bazkideentzat prezio
berezia

Ordutegiak eta prezioak

	Ordutegiak	Seme-alaba bakarra	2 anai-arrebak	3 anai-arrebak
HH3-HH4 Hilabete osoa	10:00-13:00	100€	90€	80€
	09:00-13:00	130€	120€	110€
HH5-LH6 Hilabete osoa	10:00-13:00	110€	100€	90€
	09:00-13:00	140€	130€	120€
HH3-HH4 Hamabostaldia	10:00-13:00	60€	55€	50€
	09:00-13:00	75€	70€	65€
HH5-LH6 Uzt. 2tik 13ra edo uzt. 16tik 27ra	10:00-13:00	65€	60€	55€
	09:00-13:00	80€	75€	70€

*Ttakuneko bazkideek deskontua izango dute udalekuetako prezio guztietan.

Espazioa

TTAKUNENA izango da elkargunea.

Ordaintzeko modua

- Ttakuneko bulegoan, kreditu txartelarekin.
- Kutxabank: ES61 2095-5048-18-1061552351 kontuan. Diru-sarreraren kontzeptuan, haurraren izen-abizenak jarri behar dira.
- Matrikulazio orria sinatuta eta ordainagiria.

GOITXOKO ZERBITZUA

09:00etatik 10:00etara

JANGELA ZERBITZUA

> 15:15ak arte.

Hilabetea: 95€

Hamabostaldia: 55€

*Plazak geldituz gero egun solteak har daitezke.

Izen-emateko, beheko orria bete eta Ttakunen bulegoan aurkeztu:

Matrikulazio orria

Izen-abizenak: _____

Gizarte segurantzaren zenbakia: _____

Jaioteguna: _____

Helbidea: _____

Telefonoa: _____ e-maila: _____

Ikastetxea: _____

Ikasmaila: _____

Goitxoko zerbitzua: Bai Ez

Jangela Zerbitzua: Bai Ez

Oharrak/alergia/dieta berezia _____

Lasarte-Orian, 2018 / __ / __

Sinadura: _____

Oharra: Matrikulazio orri hau sinatzerakoan onartutzat emango da adierazitako araudia eta egiazkotzat direla azaltzen diren datuak.



LASARTE-ORIA TRAIL

Taldeko estreinua, Berako mendi lasterketan

Herritar ugari parte hartu dute igandean Berako Mendi Maratoi Erdian. Tartean Lasarte-Oria Traileko dozena inguru. Beste lasterketa askotan parte hartu dute aurretik, baina esan daiteke taldeko estreinua Beran egin dutela. Elastiko urdinak soinean, hamahiru taldekide atera ziren Berako irteeratik. 21 kilometrotan 1.300 metro desnibel positiboa gainditu ondoren, denak iritsi ziren onik helmugara. Herritarren artean nabarmentzekoa da Beñat Los Arcosen marka: 2:04. Baita Ritxar Marcosen ere: 2:12.

Mitxelenak master mailako Espainiako errekorra ondu du

Buruntzaldea IKTko igerilariarik asteburu bikaina izan dute Gijoneko, Tarbeko (Frantzia) eta Tolosako probetan.

Haitz Mitxelenak master 25-29 mailako 200 m. tximeleta probako Espainiako errekorra ezarri du Gijonen, 2:13,39.

Tarben, berriz, Aintzane Sarobek, Paula Sevillanok, Ainhoa eta Leire

Martin ahizpek Gipuzkoako Selekzioarekin lehiatu dute. 9 urre, 3 zilar eta 3 brontze, 9 marka pertsonal eta txapelketako errekor bat ekarri dituzte.

Bestalde, sei taldekidek Udaberriko Ligako lehen jardunaldian 9 marka pertsonal ondu dituzte.

Hau guztiaz gain, Ainhoa Martin eta Nahia Zudairek Espainiako Selekzioaren deia jaso dute. Biek ekainean nazioarteko probetan hartuko dute parte: Martinek Erroman eta Zudairek Berlinen.

Raul Gomez Margallo hirugarren Maratoi Erdiko 10K proban

Donostiako Maratoi Erdia eta 10 kilometroko proba jokatu ziren igandean. Hainbat herritar lehiatu zuten; 10 km. proban hiru lehen hamarren artean ibili ziren. Raul Gomezek hirugarren postu orokorra eta beterranoen lehena eskuratu zuen. Jon Presa berriz, zazpigarren iritsi zen helmugara. Maite Salazar hamargarren izan zen bere mailan.

Beltzen 18 urtez azpikoa, Euskal Ligako finalean

Babyauto Zarautz-Beltzak taldeko 18 urte azpiko taldeak Hernaniren aurka jokatu zuen larunbatean Euskal Ligako finalerdia. Lehen zatian hernaniarrak indarrez atera ziren, eta beltzen defentsa aurkitu zuten aurrez aurre. Atsedendira 7-7 iritsi ziren. Bigarren zatian, berriz, beltzak nagusi izan ziren, 12-27. Durango izango du arerio finalean.

II. OSASUNAREN GAINEKO JARDUNALDIAK

Apirilak 23 eta 24 • Kultur etxeko hitzaldi-aretoan • Lasarte-Oria 2018



Apirilak 23 astelehena

16:00 - 16:30: Peluquería de caballeros Ana "Nola akabatu zorriak"



16:30 - 17:00: Clínica Dental Aldaz "Protesi kengarrien zainketa eta mantentzia"



17:00 - 17:30: Peluquería Marbell "Nubea Oil Therapy. Buruko larruzalerako Nubea terapiak. Esentzia-olioen sinergia"

17:30 - 18:30: Haritza Terapia Energetikoak "Osteopatiaren onurak"



18:30 - 19:00: Multiópticas Lasarte "Helduaroko ikusmen-arazoak: Nola aurea hartu eta konpondu"

Apirilak 24 asteartea

17:00 - 17:30: Oihana Estetika "Irrati-frekuentziako tratamendua Medsec-ekin eta tratamenduak Dermapunt-ekin"



18:00 - 19:00: Clínica Podológica Amaia Olondris "Oinkadaren estudioa"

19:00 - 19:30: Osteopatía Noelia Calero "Noiz joan osteopatarenera eta zergatik?"



Apirilak 27 ostirala Establezimendu propioan

18:00: Salto Gela Psikomotrizitatea "0 eta 2 urte arteko seme-alabak dituzten familientzat topaketa: Nire seme-alaba jaio da, eta orain zer"



Arteaga II.ak ez du buruz burukoan aurrera egin

Asier Arteagak ezin izan zuen Elezkano II.a garaitu Astelena pilotalekuan jokaturako partidari. Intzako pilotariak, aldiz, ederki hasi dute lau t'erdiko txapelketa. San Pedro Jaietako txapelketarako izena ematea ere ireki du herriko pilota elkarteak

Txintxarri

Asier Arteaga pilotariak buruz buruko txapelketako partida jokatu zuen igandean, Eibarko Astelena pilotalekuan. Herritarra ez zen bakarrik egon txapelketa nagusiko estreineko partidari; berrogeita hamar bat lasarteoriatarren babesia izan zuen. Baina herritarren animoak ez ziren nahikoak izan Elezkano II.a garaitzeko. Bizkaitarrak ez zion aukerarik eman, eta 22-6 galduta txapelketatik at geratu da Arteaga.

Txapelketa nagusiko bere lehen partida izateak kalte egin zion Arteagari. Urduri jokatu zuen, eta tentsioak ez zion herritarrek ahal duen bezain bizkor mugitzen utzi.

Elezkanok, ordea, ez zuen arazorik izan. Hasieratik lasai jokatu zuen. Ederki erantzun zion Arteagaren erasoei, eta ez zuen oparirik egin.

Bizkaitarra 7-0 aurreratu zen markagailuan, eta pixkanaka, herritarren zoritxarrerako tartea handitzen joan zen. Arteagaren tantoek herritarren txalo eta animo hitzak zituzten erantzun.


Ederki lau t'erdian

Intza elkarteko pilotariak, berriz, ederki eman diote hasiera lau t'erdiko txapelketari. Solano eta Iruretagoienak garaipenak erdietsi zituzten.

Iruretagoienak Intxurreko Jauregi 7-22 garaitu zuen, Ikaztegiatan. Solanok, berriz, Errenterian jokatu zuen EPLEko Aranbururen aurka, eta 16-22 gailendu zen.

Azkenik, Iribarrek arazo fisikoak medio, ezin izan zuen partida jokatu. Intzako kideak jakinarazi dutenez, azken aldian ezker eskuan mina izan du pilotariak, eta asko hausnartu ostean, txapelketa uzteko erabakia hartu du.

Alabaina, Intzako beste pilotari bat gehituko da



Arteaga Ila eta Elezkanoren arteko norgehiagokako irudia. ASEGARCE

lehiaketara aste honetan, Jon Peio Artetxe.

Asteburu honetan guztiek etxean, Michelingo kirolguneko pilotalekuan, jokatu dituzte partidak; pilota zaletuek egunero gozatuko dute.

Gaur ostirala, 19:30ean, Artetxek Gure Txeruko Aristiren aurka jokatu du. Larunbatean, 11:00etan, Solanok Gaztelekuko Oiarbide izango du aurrez aurre. Eta igandean, 11:00etan, Iruretagoienaren txanda izango da. Tolosa Aurrera taldeko Elola izango du arerio.

San Pedro Jaietako txapelketa

Bestetik, Intza elkarteak San Pedro jaietako XXVI. eskupilota txapelketako izena emate epea ireki du.

2004 eta 2009 urte artean jaietako lasarteoriatar gazteek

IRAURETAGOENAK ETA SOLANOK GARAIPENA ERDIETSIZ HASI DUTE LAU T'ERDIKO TXAPELKETA

parte hartu dezakete txapelketa honetan.

Hiru maila ezberdinetan lehiatuko dute: benjaminak 2008-2009 urteetan jaietako neska-mutilak; alebinak, 2006-2007 urteetan jaietako neska-mutilak eta infantilak, 2004-2005 urteetan jaietako neska-mutilak.

Partidak larunbat eta igande goizetan jokatu dira Loidi-Barren frontoian.

Pilotak antolatzaileek jarriko dituzte. Benjaminak eta alebinak pilota goxuarekin jokatu dute; infantilek, aldiz, toke erdiko pilotekin.

Antolatzaileek jakitera eman dutenez, nahitaezkoa da kirola egiteko arropa egokiarekin jokatea; finalerdia eta finala arropa zuriarekin jokatu da.

Hau guztiaz gain, antolatzaileak ohartarazi dute ez direla txapelketako partidatan gerta litezkeen lesioez edota istripuez arduratuko.

Izena ematea astearte eta ostegunetan 18:30etik 20:00etara egingo da Michelingo pilotalekuan. Azken eguna maiatzaren 9a izango da.

Camposek brontzezko domina lortu du Euskadiko Txapelketan

Frantziako Saint Cyprien txapelketan izan dira LOKEko gaztetxoak. Oier Guisadok brontzezko domina ekarri du

Txintxarri

LOKEko judokak dominak metatzen jarraitzen dute. Azken asteetan Euskadiko Txapelketan edo Frantziako Saint Cyprien txapelketan emaitza onak lortu dituzte.

Apirilaren 15ean, igandean Hernani jokatu da Euskadiko kadete txapelketa. Almi Campos eta Lucas Morales gaztetxoek ederki egin dute borroka. Almi brontzezko domina eskuratu du; Lucas, ordea, dominarik gabe geratu da.

Europar lehiak

Bestalde, Oier Guisado, Mario Herrero, Santi Mezzana, Oier Bocos eta Ekhi de la Cruz gaztetxoek martxo amaieran nazioarteko arerioekin indarrak neurtu zituzten Frantziako Saint Cyprien txapelketan. Europa osoko judoka infantilak bildu ziren eta Oier Guisadok brontzea eskuratu



Almi Campos dominarekin. G. ARISTEGI

zuen. Lau borrokaldi egin zituen LOKEko gazteak, eta hirugarren postuaren lehiak serbiar bat izan zuen aurrez aurre.

Beste guztiek borroka bakarra egin zuten; esaterako, Mario Herrero esloveniaren baten aurka jokatu zuen, eta Santi Mezzanak judoka frantziarra izan zuen arerio.

Txapelketaren biharamunean Carcassone ezagutu zuten gaztetxoek.



BURUNTZAZPI

Buruntzazpiko gazteak, bikain

Buruntzazpi elkarteko txirrindulariak errepideko denboraldia hasia dute, eta ederki hasi gainera. Daniel Fursenko infantila garaile izan zen Donostiako proban, eta Zumaiako lasterketan Asier Pozo kadeteak hirugarren postuan igaro zuen helmuga puntua. Bestetik, Gaztetxo trofeoaren lehen proba jokatu zen Villaban. Lehen urteko kadete den Beñat Carbayadak laugarren postua eskuratu zuen.

ZORION AGURRAK



Mara
Zorionak maitia zure 4. urtebetetzean! Ondo pasa zure egunean! Maite zaitugu! Familia guztiaren partez.

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; bi bide dituzu Txintxarriren bidez zoriortzeko:

Internet

Txintxarri.eus-en txintxarri.eus/zorionagurra eta bidali zure zorion agurra formularioa bete.

Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta ostiralean Txintxarri paperean.

Posta elektronikoa

Mezua bidali txintxarri@txintxarri.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua. Ez ahaztu irudia atxikitzeaz.

Osteguneko 16:00ak arte jasotako zorion agurra bakarrik iragarriko ditugu. Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala, 20 URBISTONDO
Larunbata, 21 URBISTONDO
Igandea, 22 URBISTONDO
Astelehena, 23 GANDARIAS-URIBE
Astearte, 24 ORUE
Asteazkena, 25 DE MIGUEL
Osteguna, 26 URBISTONDO

EGUNEKO FARMAZIAK: 9:00-12:00
ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943 36 26 52
ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943 36 35 49
DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943 37 11 51
LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943 36 17 74
GIL: Kale Nagusia 24/ 943 36 15 29
URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943 36 65 67
GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943 01 95 21

GAUEKO FARMAZIA: 22:00-9:00

Castilla-Larburu:
Urbietakalea 7, Hernani/ 943 55 29 41

Gipuzkoako farmazien eskuko telefonorako 2017ko egutegia eskuratzeko, bidali FARMA 215800 zenbakira.

Gehieneko kostua 1,7 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera (www.cofgipuzkoa.com).

TELEFONOAK

UDALAREN TELEFONOAK:

ERREGISTROA: 943 371 629
EUSKARAKO ZERBITZUA: 943 376 184
KIROLDEGIA: 943 376 182
MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA: 9
43 376 181
GIZARTE ZERBITZUAK: 943 376 179
KIUB: 943 361 605
UDAL EUSKALTEGIA: 943 361 621
MUNTERI AEK: 943 372 863

LARRIALDIKO TELEFONOAK:

OSASUN ZENTROA: 943 007 960
DYA: 943 464 622
GURUTZE GORRIA: 943 363 953
UDALTZAINAK: 943 362 442
ERTZAINZA: 943 538 840
SOS DEIAK: 112

SUDOKUA

	5		3	6		9	
			8	4		7	6
			2			5	
1					3	8	
	8					5	1
	7	9				2	
6	3	5					
2		7	5				3
			1	3	7		5

OHARRAK

Biyak bat elkarteko gizonen ileapaindegia martxan

Biyak Bat elkartek jakinarazten du, gizonetzko ileapaindegi zerbitzua martxan dela.

Ileapaindegiaren ordutegia honakoa da: astelehenetik ostiralera, goizez 10:00etatik 13:00etara eta arratsalde, 16:00etatik 18:00etara.

Bada garaia, presoak kalera manifestazioa

Apirilak 21, larunbata, *Bada garaia, presoak kalera. Konponbidea, bakea, askatasuna* lelopean manifestazio nazionala egingo da Bilbon. Mobilizazioa, Kasillatik aterako da, 17:30ean eta Bilboko

kaleetatik barrena presoak kaleratzea aldarrikatuko du.

Autobus zerbitzua antolatu dute Lasarte-Orian eta ohiko lekuetan izena eman daiteke. Autobusak 15:30ean aterako dira Tajamar biribilgunetik.

Herritar talde batek lasarteoriarrei deialdia egiten die ekitaldian parte hartzeko.

Zubietako Udako Txokoak

Zubietako Guraso Elkarteak udarako haur txokoak antolatuko ditu Zubietan, 2 eta 12 urte bitarteko haurrei zuzenduak.

Txokoetan parte hartzeko, uztailearen 27ra arte aurretiko izen emate epea zabalik dago. Interesatuak zubietatxoko@gmail.com.

com helbidera idatzi edo 649659786 telefonora dei dezakete.

Bachir-entzat justizia eskatzeko elkarretaratzea

Apirilaren 14an Donostiako Altza auzoan gertatutako liskar baten ondorioz hildako Bachir 39 urteko gizonetakoaren omenez, elkarretaratzea deitu dute gaur, ostirala, 12:00etatik 12:30era, Okendo plazan.

Aterpea 25. urteurreneko afaria

Aterpea Merkatarri elkarteak 25. urteurrena ospatzen ari da. Ospakizunen artean, maiatzaren 19an, afaria antolatu du Maialen Chourraut kiroldegian. Ostean,

dantzaldia izango da, Ibai Berriak taldeak girotua.

Tiketak 40 euro balio ditu eta maiatzaren 12ra arte izango dira salgai elkarteko dendetan.

Galizia eta Portugalera bidaiak

Biyak Bat elkartek bidaiak antolatu du Galizia eta Portugalera iparraldera, maiatzaren 27tik ekainaren 5ra. Elkarteko bazkideek 530 euro ordaindu behar dituzte; bazkideak ez direnak, berriz, 580 euro. Izena ematea elkarteko bulegoan egin behar da astelehenetik ostiralera 10:30etik 12:30era.

AZOKA TXIKIA

ETXEBIZITZA

ESKAERA
Etxeko lanak egiteko eta adineko pertsonak zaintzeko esperientziadun pertsona eskaintzen da. Telefonoa: 696 652 161. Piedad.

Adinekoak zaintzeko prest, interna edo externa moduan. Gaez ere bai. Esperientzia handiko pertsona, tituluduna, erreferentziak ere badituz. 678 242 463.

SALEROSKETAK

SALMENTA

Shakirak ekainaren 28an BEC-en emango duen kontzerturako lau sarrera saltzen dituz. 689 709 837

BESTELAKOAK

HEZKUNTZA

Frantseseko, ingeleseko eta latineko klaseak emango nituzke, baita eskola laguntzakoak ere. 600 766 068

JAIOTAKOAK

Nora Pelaez Merino. Apirilaren 14an.

HILDAKOAK


Esteban Herrero Prieto. Apirilaren 16an.
Juan Goenaga Mendizabal. Apirilaren 14an.
Juan Jose Sanchez Fabian. Apirilaren 14an.

ESKELAK JARTZEKO: 943 37 14 48 edo TXINTXARRI erredakzioa

- Hileta egunean eskela Txintxarri.eus-en + Oroigarria edo Esker ona Txintxarri paperean: 90€
- Eskela mota guztiak Txintxarri paperean + Txintxarri.eus-en: 90€
- Eskela mota guztiak Txintxarri paperean: 80€

Txintxarri aldizkaria: doan eta euskaraz
Lasarte-Oriako etxe guztietan

MANTTANGORRI HIRIBUSA



Lanegunak

Antxisu	Zabaleta	Atsobakar	Kotxerak
08:00	08:10	08:15	08:20
08:40	08:50	08:55	09:00
10:30	10:40	10:45	10:50
11:00	11:10	11:15	11:20
11:30	11:40	11:45	11:50
12:05	12:15	12:20	12:25
12:30	12:40	12:45	12:50
13:00	13:10	13:15	13:20
13:30	13:40	13:45	13:50
16:30	16:40	16:45	16:50
17:00	17:10	17:15	17:20
19:30	19:40	19:45	19:50
20:00	20:10	20:15	20:20

txintxarri

www.txintxarri.eus

PUBLIZITATEA

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
Tel.: 943 37 14 48 (106)
publizitatea@ttakun.eus

EGOITZA NAGUSIA

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
Tel.: 943 37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@txintxarri.eus

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Legu Gordailua: SS-513/94

ISSN: 1134-0053
Tirada: 8.000 ale

BABESLEA



LASARTE-ORIA
UDALA

LAGUNTZAILEAK



HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



Gipuzkoako Foru Aldundia



**MEKA
LEKU**
AKADEMIA

mekanografia EXPRESS



1. Aukera

Maiatzaren 2tik
Ekainaren 20ra

36 ordu

2. Aukera

Ekainaren 1etik
Uztailaren 27ra

36 ordu

Udarako izen-emate epearen IREKIERA

- **Zientziak:**
Mate, fisika, kimika
- **Laguntza-eskolak:**
Irakurketa, ulermena, ortografia
- **Ikasteknikak:**
Eskemak, laburpenak
- **Hizkuntzak:**
PET - FIRST - ADVANCE
Ingelesa, euskara, gazte

MEKA LEKU AKADEMIA
Ola kalea, 8 behea
Tel.: 943 37 31 95
653 01 11 76

Zozketa!

KANONAK
Imanol Urbietaren

92. Gura Espiritualerria!

Udaberri k...
kuntan an...
mend... gaitrea

**KORALAREN
ATARIAN**

Ttakuneko bazkide zara?

Apirilean Imanol Urbietaren "Kanonak" kantu-liburua zozkatuko dugu gure bazkideen artean. Zozketan sartzeko, eman izena apirilaren 26a baino lehen harpidetza@ttakun.eus helbidean, Ttakunen bulegoan edo 646 82 44 66-ra whatsapp-a bidalita.



Bazkideza
informazioa



@TtakunKE

**euskara
bada
errenta**



ERRENTA AITORPENA EUSKARAZ

APIRILAREN 6TIK AURRERA
AUTOLIKIDAZIOA ONARTZERAKOAN,
SAKATU EUSKARAREN AUKERA

Informazio gehiago: <http://euskara.buruntzaldea.eus>
Albisteak elkarbanatu eta opariak eskuratu!

Andoain / Astigarraga / Hernani / Lasarte-Oria / Urnieta / Usurbil
UDAL EUSKARA BATZORDEAK

